

MANIFESTUA. DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO EGUNA

ESKUBIDEAK, ANIZTASUNA ETA PARTE-HARTZEA

Nafarroa gizarte inklusiboa eta irisgarria da?

Abenduaren 3a Desgaitasunen bat duten Pertsonen Nazioarteko eta Europako Eguna da. Hori dela eta, 2025 honetan, CERMIN elkarte mugimenduak honako manifestu hau aurkeztu nahi dugu jendaurrian:

Dagoeneko hiru urte igaro dira Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko Foru Legea onetsi zenetik. Legea onetsi izana aurrerapauso handia da desgaitasuna duten pertsonen eta senideen eskubideak aitortzeko. Beraz, lanean jarraitu beharko dugu Legearen xede nagusia lortze aldera, hots; *“Nafarroan desgaitasuna dutenen eskubideak bermatzea eta jarduketa batzuk ezartzea haiei arreta emateko, eta, bestetik, irisgarritasun unibertsalerako baldintzak finkatzea, beharrezkoak baitira desgaitasunen bat dutenen eta haien familien aukera-berdintasuna, autonomia pertsonalaren sustapena, komunitateko inklusioa, parte-hartzea eta bizimodu independentea bermatzeko.”*

Legearen printzipioen artean, honako hauek daude, besteak beste: *“Desgaitasuna duten pertsonen desberdintasuna errespetatzea eta onartzea, giza dibertsitatearen eta gizatasunaren zati den aldetik, (...) desgaitasuna duten pertsonen artean dagoen aniztasuna ere errespetatzea eta onartzea, eta horretarako, beharrezkoa da indibidualizatzea”* edo *“Parte-hartze eta inklusio sozial osoa eta egiazkoa, desgaitasuna dutenek aurki ditzaketen oztopoak ezabatuz, izan jarrerari lotutako oztopoak, izan oztopo fisiko, juridiko, ekonomiko, sozial edo komunikaziokoak”*

Desgaitasuna dugun pertsonok talde anitza osatzen dugu, baditugu desgaitasun fisikoak, sensorialak, organikoak, intelektualak, garapenari lotutakoak, psikosozialak... Gainera, beste baldintzatzaile batzuk ere hartu behar dira kontuan, hala nola adina, generoa, sexu-joera, jatorria, maila sozioekonomikoa, landa- edo hiri-ingurunea...

Aniztasuna aitortzea lagungarria zaigu errespetuan oinarritutako gizarte inklusiboagoa eraikitzeko, pertsona bakoitzaren egiazko beharretara egokitutakoa.

Parte-hartzeak berarekin dakar askatasuna izatea erabakiak hartzeko, entzuteko eta aitortzeko, eta askatasuna ere, hezkuntza, lan, kultur, kirol eta komunitatearen espazioetan sartzeko; azken buruan, gizartean era aktiboan jokatzeko.

Askotan, zalantzan jartzen dira gizarte, kultur eta lan bizitzan egiazki parte hartzeko ditugun eskubideak eta gaitasuna, baita araudi eta legeen prestaketan parte hartzeko orduan ere.

Pertsona bakoitzak gure trebetasunak eta komunikazio moduak ditugu, baina gure premiak ere, besteenak ez bezalakoak. Arazoa ez da pertsona, gure parte-hartze osoa eragozten duten gizarte hesiak baizik.

Nafarroan, aurrerapausoak ematen ari dira gizarte inklusiboago eta irisgarriago batera jotzeko, baina oraindik ere bada zer egina.

Hori dela eta, honako hau eskatzen dugu:

- Jendea sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea, desgaitasunen bat duten pertsonen gizartean parte har dezaten eta gizarteratu daitezen sustatzeko, gizarte zibil antolatuaren, botere publikoen eta komunikabideen arteko lankidetzaren ikuspegitik.
- Ingurune, produktu eta zerbitzuei irisgarritasun unibertsala ematea, desgaitasuna dugun pertsonok bestelako zailtasunik izan ez dezagun harremanetarako eta parte-hartze sozialerako.
- Landa Garapen Inklusiborako Estrategia Nazionala onestea, desgaitasuna duten eta landa-ingurunean bizi diren pertsonak kontuan hartuko dituen, haien parte-hartzea hobetzeko eta haien eskubideak eta gizarte-ongizatea hobeki bermatzeko.
- Irisgarritasun unibertsala politika publiko guztietan sartzea, desgaitasuna duten pertsonen aniztasuna kontuan hartuta.
- Inklusioa eta parte hartzea unibertsalizatzea eskatzen dugu, desgaitasuna duen pertsonaren bizitzako ingurune guztietan benetako laguntzak, nahikoak, eta banan-banakoak ahalbidetuz: hezkuntzan, gizartean, osasunean, kirolean, kontsumoan, jendearen eskura dauden ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko orduan, informazioa eta komunikazioa eskuratzeko orduan, etab.

Gizartea, oro har, eta administrazio publikoak, zehazki, benetako inklusiora bideratu behar dira, irisgarritasuna, autonomia, aniztasuna eta parte-hartzea beti bermatuta; ez, ordea, salbuespenez. Nafarroak baditu tresnak: orain, haien gainean gizarte bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzea dagokigu.

Desgaitasuna dugun pertsonok gainerako herritarrek bezala parte hartu eta lagundu nahi dugu gizartean, eta bagara horretarako gauza, "parte hartzea ez baita soilik egotea, parte hartzea parte aktiboa izatea eta eragitea baita".